



EBAZPENA, 2023ko apirilaren 24koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena, 2022-2023 ikasturtean unibertsitateko eta unibertsitateaz kanpoko beste goi-mailako ikasketa batzuk egiteko beka ebazten dituen.

2022ko ekainaren 21eko aginduaren bidez (2022ko uztailaren 5eko EHAA), Hezkuntza sailburuak beka-deialdi bat egin zuen, 2022-2023ko ikasturtean unibertsitate- eta unibertsitatekoak ez diren beste goi ikasketa batzuk egiteko.

Zazpigarren ebazpen-proposamena 2023ko apirilaren 3an argitaratu eta jakinarazi ondoren, proposamena onartu duten pertsonen beka orokorraren behin betiko 7. ebazpena argitaratu da, bai eta orain arte ebatzi diren alegazioak ere.

Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako prozedurako gainerako arauak bete ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehen artikulua.- 2022-2023 ikasturteko unibertsitate-beka orokorraren eta goi-mailako beste ikasketa batzuen deialdian parte hartzen duten eskatzaileei behin betiko 7. ebazpena jakinaraztea. Eranskinean zerrendatzen dira onartutako edo ukatutako eskabideak. Eskatzaileek beren eskaerari buruzko ebazpenaren xehetasunetara jo dezakete beken aplikazioaren bidez.

Bigarren artikulua.- Eranskinean ageri diren eskatzaileei jakinaraztea ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtoa aurkezteko diezaioketela Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari. Errekurtoa aurkezteko epea hilabetekoa da, egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 24a.

Miren Artaraz Miñón
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria